ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2018ko martxoaren 28a, asteazkena • 37 zk.

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

200/2018 Foru Agindua, martxoaren 20koa. Honen bidez, Hautatuen behin betiko zerrenda argitaratzea Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorrean 2016ko enplegu eskaintza publikoan, sistema irekiaren txanda orokorraren bidez, karrerako funtzionario gisa sartzeko, deialdi honetan: administrazio bereziko eskala, teknikarien azpieskala, erdi-mailako teknikarien klasea, Topografiako Ingeniari Teknikoa, A2 taldea

Azaroaren 18ko 337/2016 Foru Arauaren bitartez onartu ziren Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorraren 2016ko enplegu eskaintza publikoa arautzen duten oinarri orokorrak.

153/2018 Foru Arau bidez, martxoaren 1ekoa, hautatuen behin-behineko zerrenda argitaratzen da dagokien lantoki zehatza adieraziz, eta erreklamazioak aurkezteko hamar egun balioduneko epea ezarriz.

11. oinarri orokorrean ezarritakoaren arabera, hautatuen behin-behineko zerrendaren aurka erreklamazioak aurkezteko epea amaitu eta aurkezten direnak ebatzi ondoren, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko diputatuaren Foru Agindu bidez onartuko du hautatuen behin betiko zerrenda, bakoitzari dagokion lanpostuarekin, eta hogei egun naturaleko epea irekiko da deialdian eskatzen diren gaitasun baldintzak eta betekizunak egiaztatzeko agiriak aurkezteko.

Diputatu nagusiaren uztailaren 3ko 132/2015 Foru Dekretuaren bidez Arabako Foru Aldundiaren sailak zehaztu ziren. Beste alde batetik, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretuaren bidez funtzio publikoaren gaietan eskumena duen sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartu ziren. Horietan guztietan ezarritakoarekin bat etorriz.

XEDATU DUT

Lehenengoa. Hautatuen behin betiko zerrenda argitaratzea Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorrean 2016ko enplegu eskaintza publikoan, sistema irekiaren txanda orokorraren bidez, karrerako funtzionario gisa sartzeko, deialdi honetan: administrazio bereziko eskala, teknikarien azpieskala, erdi-mailako teknikarien klasea, Topografiako Ingeniari teknikoa, A2 taldea:

IZENA	LANPOSTUA	KODEA
Íñigo Viana Díaz de Corcuera	Lurralde-Informazio Sistemako Erdi-Mailako Teknikaria	1247.001
Nuria Quintana Aristimuño	Desjabetzapen, Proiektu eta Obretako Erdi-Mailako Teknikaria	1248.001
Nerea Plazaola Azcarraga-Urizar	Topografiako Erdi-Mailako Teknikaria	1242.003

Bigarrena. Hogei eguneko epea irekitzea, Foru Agindu hau ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengotik hasita, aukeratutako izangaiek 11. oinarri orokorrean zehazten diren agiriak aurkez ditzaten.

Gasteiz, 2018ko martxoaren 20a

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren diputatua
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, OU=ZIURTAGIRI ONARTUA - CERTIFICADO RECONOCIDO, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 108817
Fecha de firma: 2018.03.28 05:21:53 Z